

SORMENEZKO JOSKINTZA ETA PATROIGINTZA (aurreratua)

Jarduera

Sormenezko joskintza munduan sakontzea. Dagoeneko oinarritzko ezagutzak dituztenei zuzendua.

Deskribapena

Ikastaro honetan, patroigintza eta jantzigintzen inguruko ezagutzetan sakontzea da helburua, beti ere, aurretiazko ezagutza izanda. Klaseetan, sormenezko joskintzak bakoitzaren nortasuna islatzeko eskaintzen dituen teknika eta aukerak aztertuko dira. Hori guztia, bakoitzaren lan pertsonaletan bilduta. Joskintzarekin lotutako beste arlo batzuk ikusiko ditugu. Jantziak kustomizatzea eta konponketak egitea.

Helburuak

- Ikaslearen irudimen-gaitasuna eta diziiplina garatzea.
- Sormenezko joskintzaren munduan sakontzea.
- Iraunkortasunaren kontzientzia garatzea
- Giza-partaidetzarako espazioak sortzea.
- Hiritarren kulturmina asetzea.

Programa

1. Hiruhilekoa

- Neurriak behar bezala hartzea
- Pertsona bakoitzari zer motatako patroï gelditzen zaion ongi jakitea
- Proiektu bakoitzerako jarraibide zuzenak
- Ehunak ezagutzea
- Diseinua eta patroïa hautatzea

2. Hiruhilekoa

- Ikasle bakoitzaren proiektuetan sakonduko dugu, eta prozesu horiek gainerako ikasleekin partekatuko ditugu, ikasle bakoitzarentzat hori baita aberasgarriena.
- Jantzigintza modu desberdinak ikasiko ditugu jantzi bera sortzeko

3. Hiruhilekoa

- Azken hiruhilekoan erronka berriak planteatuko dira, zerbait oso berezia sortzeko helburuarekin.
- Ikasle bakoitzaren proiektuetan sakontzen jarraituko dugu, eta prozesu horiek gainerako ikasleekin partekatuko ditugu.

Irakaslea

- Prokulturako irakasle taldea

Nori zuzendua

Helduak

Ikasleak eraman beharreko materiala

Jostorrazak, oihalak, eraldatzeko arropa. Norberaren lana burutzeko beharrezko materiala eta, ahal bada, josteko makina.